



## Hizkera argiak herritarrei argitaratzen ditugun edukiak errazago irakurtzen, ulertarazten eta erabiltzen laguntzen die

### Zer da hizkera edo komunikazio argia?

Hizkera argiaren irizpideak erabilia idatzitako testu batek herritarrei laguntzen die:

- behar duten informazioa **berehala aurkitzen**.
- **mezua erraz ulertzen**.
- **erabakiak jakin beharrekoak jakinda hartzen**.

Herritarren eskubide bat da administrazio-testuak argiak izatea, bereziki, erabakiek haien bizitzetan ondorio garrantzitsuak dituztenean.

Testuak hartzailen lekuan jarrita idaztea da, haien premiak, interesak, ezaugarriak eta abar aintzat hartuta.

Hau da hizkera argiaren beste definizio bat:

*Idazki argi, labur eta ondo antolatu bat, dena delako eremuarekin eta testuaren hartzailerekin erlacionatutako beste jardunbide egoki batzuk ere betetzen dituena.*

**Hizkera argia eta irakurketa erraza** ez dira gauza bera –azken hori zailtasun kognitiboak dituztenei dago zuzendurik bereziki–, baina helburu bera dute: herritar guztiek modu ulergarrian izatea behar duten informazioa.

### Zergatik erabili hizkera argia gure komunikazioetan?

Hizkera argiaren irizpideak betetzen dituzten testuak idaztea guztiontzat da mesedegarri: bai herritarrentzat, bai administrazio publikoarentzat:

#### Herritarrek:

- azkarrago eta errazago ulertzen dituzte agiriak
- akats gutxiago egiten dituzte inprimaki eta orriak betetzerakoan
- azkarrago eta zuzenago betetzen dituzte jarraibide eta zehaztapenak
- ez dute telefono deirik egin beharrik zalantzak argitzeko edo informazio gehiago eskatzeko

**Guk, berriz, administrazio publiko garen aldetik**, gure dokumentuak gaizki ulertzeko aukerak gutxitzen ditugu, eta, horrenbestez, lan gutxiago izango dugu:

- informazioa argitzeko telefono-deiei erantzuten, izan ZUZENEANen, izan kudeaketa-zerbitzu propioetan
- informazioa emateko eta zalantzak argitzeko mezu elektronikoei erantzuten
- dokumentazioa zuzentzeko izapideak egiten
- baliabide gehiagori erantzuten

Azken finean, denbora, ahaleginak eta baliabideak aurreztuko dituzte (eta, beraz, dirua) herritarrek nahiz administrazioak, eta, gainera, zerbitzu hobek emango.



## Hizkera argiak herritarrei argitaratzen ditugun edukiak errazago irakurtzen, ulertarazten eta erabiltzen laguntzen die

### Hizkuntza argira egokitutako edukiaren adibidea

#### Jatorrizko testua

##### Prestazio ekonomikoa

1. Laguntza horren zenbatekoa, oro har, langabeziagatiko sei hilabeteko sorospenaren baliokidea izango da.
2. Genero-indarkeriaren biktimak familia-erantzukizunak dituenen, laguntzaren zenbatekoa honako hauen baliokidea izango da:
  1. Langabeziagatiko hamabi hilabeteko sorospena, biktimak bere kargura senide bat edo harrerako adingabea duenean.
  2. Langabeziagatiko sorospeneko hemezortzi hilabete, biktimak bere kargura bi senide edo gehiago edo harreran hartutako adingabeak, edo senide bat eta harrera txikia dituenen.
3. Genero-indarkeriaren biktimak ofizialki ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta duenean, laguntzaren zenbatekoa honako hauen baliokidea izango da:
  1. Hamabi hilabeteko langabezia-sorospena, biktimak familia-erantzukizunik ez duenean.
  2. Langabeziagatiko sorospeneko hemezortzi hilabete, biktimak bere kargura senide bat edo harrerako adingabea duenean.
  3. Langabeziagatiko sorospeneko hogeita lau hilabete, biktimak bere kargura bi senide edo gehiago edo harreran hartutako adingabeak, edo senide bat eta harrera txikia dituenen.
4. Genero-indarkeriaren biktimak ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila ofizialki aitortuta duen senitartekoren bat edo harrerako adingaberen bat bere kargura duenean, laguntzaren zenbatekoa honako honen baliokidea izango da:
  1. Langabeziagatiko sorospeneko hemezortzi hilabete, biktimak bere kargura senide bat edo harrerako adingabea duenean.
  2. Langabeziagatiko sorospeneko hogeita lau hilabete, biktimak bere kargura bi senide edo gehiago edo harreran hartutako adingabeak, edo senide bat eta harrera txikia dituenen.
5. Familia-erantzukizunak dituen genero-indarkeriaren biktimak edo harekin bizi den senitartekoak edo harrerako adingabeak ofizialki ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta badu, laguntzaren zenbatekoa langabeziagatiko subsidioko hogeita lau hilabeteren baliokidea izango da.
6. Genero-indarkeriaren biktimak eta harekin bizi den senitarteko edo harrerako adingabeak ofizialki ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta badute, laguntzaren zenbatekoa langabeziagatiko subsidioko hogeita lau hilabeteren baliokidea izango da.



## Hizkera argiak herritarrei argitaratzen ditugun edukiak errazago irakurtzen, ulertarazten eta erabiltzen laguntzen die

### Hizkuntza argira egokitutako edukiaren adibidea

Hizkera argiko testua			
<b>Laguntzaren zenbatekoak:</b>			
Laguntzaren zenbatekoa eskatzailearen desgaitasun-mailaren, ardurapean duen pertsona-kopuruaren eta horiek desgaitasuna izatearen arabera izango da:			
	Emakumea, ardurapeko pertsonarik gabe	Senidea edo ardurapeko adingabea duen emakumea	2 senide edo gehiago bere kargura dituen emakumea
Desgaitasunik gabeko emakumea	2.556 €	5.112 €	7.668 €
% 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten emakumeak	5.112 €	7.668 €	10.224 €
% 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen eta bere kargura senide bat edo adingabe bat duen emakumea		7.668 €	10.224 €
% 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duen emakumea, edo % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duen senide edo adingabe bat bere kargura duena.		10.224 €	10.224 €
% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen emakumea, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen senide edo adingabe bat ardurapean duena.		10.224 €	10.224 €
<i>Kopuruak kalkulatzeko, hileko IPREMaren (Ondorio Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa) % 80 erabiliko dugu. 2017an 532,51 €-koa zen (2010ean bezalaxe), eta % 80 426 €-koa. Bada, kopuru hori 6, 12, 18 eta 24 hilabeterekin biderkatuko dugu, eta diruz lagundu daitezkeen 4 zenbatekoak aterako zaizkigu: 2.556, 5.112, 7.668 eta 10.224 €.</i>			



## Hizkera argiak herritarrei argitaratzen ditugun edukiak errazago irakurtzen, ulertarazten eta erabiltzen laguntzen die

### Hizkuntza argira egokitutako edukiaren adibidea

Jatorrizko testua	Hizkera argiko testua
<p>1.- Zenbateko horiek % 10 handituko dira praktikaldiko kontratuen kasuan, baldin eta gutxienez 12 hilabeteko iraupena badute.</p> <p>2.- Adierazitako dirulaguntzen zenbateko guztiak % 10 handituko dira, baldin eta kontratuak emakumeekin egiten badira emakumeak ordezkatuta ez dauden eremuetan.</p> <p>3.- Aipatutako dirulaguntzen zenbatekoak lanaldi osoko kontratuei dagozkie. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, zenbatekoak lanaldiaren proportzioan doituko dira.</p>	<p>Zenbatekoa % 10 handituko da:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Gutxienez 12 hilabeteko iraupena duten praktikaldiko kontratuak.</li><li>• Emakumeentzako kontratuak, ordezkaritza txikia duten eremuetan.</li></ul> <p>Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, zenbatekoak lanaldiaren proportzioan doituko dira.</p>